
PRENTSA-OHARRA



KUTXA KULTUR MUSIKA 2016

Atsegin handiz jakinarazten dizuegu aukeratu ditugula Kutxa Kultur Musika 2016 egonaldien programan parte hartuko duten talde guztiak.

Onarpen-epea itxi arte, 68 proposamen aurkeztu dira deialdira. Proposamen horiek Gipuzkoan edo atzerrian bizi diren artista gipuzkoarrek egin dituzte, baina baita beste lurralde batzuetan jaiota ere beren proiektua gure artean luzaroan lantzen aritu diren beste zenbaitek ere. Suedian edo Kolonbian lan egiten duten artista gipuzkoar eta Donostialdean bizi diren artista britainiar, italiar eta korsikar hauek osatzen dute gure musikaren egungo arte-errealitate globalizatuaren lehenengo argazki finkoa. Proposamen horiek agerian uzten dute egungo musikan nagusi den arte-aniztasuna: elektronika, folka, popa, hip hopa, reggaea, metala...

Aurten ere taldeen maila altua izan dela azpimarratu nahi dugu.

PRENTSA-OHARRA

Hona hemen aukeratutako sei taldeak eta haien aurkezpen-gutunak:



LUMA

Taldea orain dela urte eta erdi sortu zen, gutxi gorabehera. Ordutik zenbait abesti egin ditugu; horietako asko baztertu egin ditugu eta beste asko mota guztietako agertokietan jo ditugu: Madrilan, Santanderren, Zaragozan, Sorian, Bilbon eta, noski, baita Donostia ere, gure jaioterrian.

Taldea bi kidek osatzen dugu, eta kontzertuetara joaten gara batez ere. Orain lau abestiko EP bat grabatu dugu, *Club* izenekoa, eta uste dugu ondo islatzen dituela taldearengan eragina izan duten elementu guztiak, baita batak bestearekin egin ditugun aurkikuntza berriak ere. EPa mugiarazi nahi dugu, atek ireki diezazkigun.

Soinuari dagokionez, esan digute *grunge*, *garage* eta *punk* estiloen eragin argiak ditugula. Gure garaikoak gara, eta hala izango gara beti, eta saiatu gara eragin horiek gaurkotasunarekin bateragarri egiten, eta alderantziz.

<https://www.youtube.com/watch?v=rsWiEd7IN0>

PRENTSA-OHARRA



IZARO

1993ko Urtezahar egunean jaio zen, Mallabia herri txikian, eta 2014an ekin zion bere musika-ibilbideari. Orduetik, itzelezko abiadura hartu du haren karrerarak. Bideo bat igo zuen YouTube-ra eta 23.000 bisitaldi jaso zituen; horri esker, *Paradise* abestia *Pikadero* filmeko soinu-bandako parte izateko aukeratu zuten. Hain zuzen ere, film hori 2015eko Zinemaldian lehiatu zen. Musika goxoa eta sentikortasun handikoa egiten du, bihotzetik ateratzen dena eta entzuten duen oro hunkitzeko modukoa. Donostian bizi dira taldeko lau musikariak: Izaro Andrés, Oriol Flores, Iker Lauroba eta Ane Bastida.

<https://www.youtube.com/watch?v=sVkJTT3a61I>

PRENTSA-OHARRA



AMOR DE TOKYO

Une honetan, hauek osatzen dugu taldea: Ane Bastida, Rubén Sánchez eta ni, Roberto Urzaiz. Ane azkoitiarra da eta Rubén Salamancakoa, baina biak Donostian bizi dira. Ni Iruñean bizi naiz, baina egonaldi luzeak egiten ditut Donostian.

Duela bi urte baino gehiagotik Igelan entseatzen dugu (Donostia).

Iaz Dabadaba aretoak Gure Bazterrak lehiaketan ematen zuen saria irabazi genuen, eta 2016ko urtarrilean publikoaren saria irabazi dugu San Adriánen (Nafarroa) egiten den Villa de San Adrián lehiaketan. Hainbat talderen hasierako gonbidatu gisa aritu izan gara (esaterako, Nudozurdo eta Lori Meyers), eta talde ospetsuekin batera jo izan dugu hainbat jaialditan; besteak beste, Vetusta Morlaarekin edo Triángulo de Amor Bizarroekin.

Bi disko eta bi EP ditugu. Hauek dira diskoen izenburuak: *Escorpiones* (2013) eta *Trabajos de Coral* (2014). 2015. urtearen erdialdean bi EP atera genituen (*Lujo Asiático 1* eta *2*), guk geuk aurreko diskoetako abestiekin eginiko nahasketak dituztenak.

<http://amordetokyo.com>

PRENTSA-OHARRA



PERLAK

Perlak talde zarauztarra 2013an sortu zen eta *indie post punk* estiloa jorratzen dute. Berehala erakarri zuten publikoa, beren abesti bizi eta suspergarriekin. Indarra, gertutasuna eta berehalakotasuna ditu ezaugarri talde txundigarri honek; abesti gordin eta ilunak sentimendu handiz lantzeko gaitasuna dute, eta abesti samurragoekin tartekatzen dituzte. 2014an beren lehen diskoa aurkeztu zuten, *Perlak*, eta urte horretan bertan Gaztea Maketa Lehiaketaren finalera iritsi ziren. Ordutik beren diskoa aurkezten ibili dira Euskal Herriko hainbat aretotan, eta 60 kontzertu inguru eman dituzte bi urtean. Iaz, Emakumeen Mundu Martxako abestia egin zuten: *Bandera Moreak*. Maiatzean bigarren diskoa aurkeztuko dute. Gaur egun, kide hauek osatzen dute taldea: Miren Narbaiza, Maite Martiarena, Patxi Agirre eta Ilargi Agirre.

<https://perlak.bandcamp.com/album/itzaletatik>

PRENTSA-OHARRA



CHARLIE AND THE COLOURS

Lan honen aurrerapen gisa, *The Rural Sessions*-eko bi abesti aurkezten dizkizuegu.

Disko hau zuzenean grabatzea erabaki dugu. Berastegiko Mehaka baserrian grabatu genuen, estudio lasai batean, eta taldearen bizikidetza horren energia transmititu diegu abestiei. Giro naturalean egon ginen, animaliaz inguratuta, eta ardo onaren eta gaueko tximiniaren beroak une eta ideia bikainak ekarri zizkigun... Entzuten dena da, hain zuzen ere, jo genuena, eta horrexegatik gaude lan honetaz hain harro. Baserriko Toy txakurraren zaunkak ere jaso nahi izan genituen, eta abestiren baten amaieran jartzea erabaki genuen.

Uste dugu garai ona dela taldearen formari dagokionez; izan ere, heldutasuna lortu dugu urte eta erdian gure lurraldeko makina bat lekutan jo ostean, besteak beste, Madrilen, Leonen, Ciudad Realen, Valladoliden, Bilbon eta Donostian.

<https://charlieandthecolours.bandcamp.com/releases>

PRENTSA-OHARRA



ANE LEUX

Ane Leux Donostiako abeslari eta musikagilea da, indie rock estilotik gertuko lengoian idazten ditu bere abestiak. Bogotán (Kolonbian) gauzatu zuen bere musika-proiektua, Carlos *El Negro* Mendoza ekoizle eta gitarristarekin eta hasieratik proiektuan lagundu dioten beste musikari batzuekin.

Denboraldi batez zuzenekoak egiten eta hainbat demo ekoizten aritu ondoren, 2015ean lehen lan luzea grabatu zuen: SENSE. Hamar abesti intimoz dago osatuta, eta bilaketa artistiko eta pertsonal eta soinu-bilaketa baten ondorengo helmugara iritsi dela adierazten dute.

Lan intimo bat da, eta bertan, giro downtempoek, konponketa argi-ilunek eta ahots-melodiek paisaia urrunak marrazten dituzte. Malenkonia eta sentsualtasuna. Hainbat eraginen arteko nahasketa nabari daiteke, esaterako: Portishead, rock eta 60ko hamarkadako soularen artekoa.

<https://soundcloud.com/user-519304136/01-fairymoon-rmx/s-z0WXw?in=user-519304136/sets/sense/s-BMgXA>

PRENTSA-OHARRA

KUTXA KULTUR MUSIKA 2016 egonaldi-programaren helburua da hautatutako taldeei prestakuntza, aholkularitza, sustapena, jotzeko guneak eta baliabideak ematea, artista gisa aurrera egin dezaten. Hori dela eta, hautatutako sei taldeek honako hauek izango dituzte:

1. **PRESTAKUNTZA.** Kutxa Kultur Class programaren eskaintzaren barruan, musika-ekoizpenarekin, autoedizioarekin edo sare sozialetako komunikazioarekin lotutako doako ikastaroak emango zaizkie, edo euren beharrak azertu eta horren arabera egokitutako ikastaro bat sortuko da.
2. **EGONALDIA.** Entseatzeko lokal bat utziko zaie beste talde batekin partekatzeko, Kutxa Kultur Fabrikan, Tabakalerako laugarren solairuan, 2016ko irailetik 2017ko apirilera arte.
3. Kanpoko **GRABATZEKO ESTUDIO** profesional bat utziko zaie lau egunez edo bideo klip profesional bat grabatzeko aukera emango zaie.
4. **SUSTAPENA.** Egonaldian zehar egonaldiari buruzko teaser bat edo bideo dokumental bat grabatuko zaie, sare sozialetan eta plataformetan aurkezpen gisa erabil dezaten. Kutxa Kultur Musika 2016 ekimena sustatzeko bilduma gisako CD bat editatuko da, talde bakoitzaren 2 abestirekin.
5. **EMANALDIAK.** Sei emanaldi egiteko aukera eskainiko zaie. Donostian, Kutxa Kultur Festibalean (irailean, Igeldoko Atrakzio Parkean), Kutxa Kultur Plazan (urria/azaroa) eta Kutxa Kultur Klubean (2016ko abendua/2017ko apirila). Horrez gain, talde hauek Katapulta Tourraren parte bihurtuko dira zuzenean. Tour hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Turismo, Kirol eta Lankidetzeta Sailak koordinatutako programa bat da, eta beste hiru kontzertu egiteko aukera emango zaie han, horietako bat nazioarteko taldeen aurrean.
6. 2.500 euroko ordainsaria jasoko dute 6 emanaldi horien truke, dieta gisa.
7. Aholkularitza profesionaleko bulego bat eskainiko zaie egonaldian zehar, Kutxa Kultur Fabrikan, entseatzeko lokalen ondoan, Tabakalera eraikinean.
8. Taldeei buruzko informazioa bidaliko zaie aldizkari digitalei, telebistei, diskoetxeei, programatzaileei eta festibalei.
9. Taldeek kontratazioari buruzko legezko aholkularitza jaso ahal izango dute, baita festibalei, komunikabideei eta programazioei buruzko informazioa ere, eta sare sozialetako komunikazioari buruzko aholkularitza, kontaktuak, etab. Taldeei laguntzeko bulego bat egongo da, doakoa, eta euren egonaldiak iraun bitartean lagunduko die. Zuzenean taldeekin lan egingo du egonaldian zehar, eta haien ordezkari edo agentziekin, halakorik izanez gero.